

IPUYA

AZERIYA

GIZASEME egoki, eta galanta zan guztiz izkribuburu onekin izengoitiz ezagungarritzen zan bat; pizkortasunez, ala oñez, nola buruz, besterik ez bezelakua, zeñak zeukan bere mendean gaztetalde bikaña, eta guztiz ibillkariya.

Muga eche, edo *Aduanaz* bestera ibiltzen zana gabazko ibillera nekosuetan, soñeko gai eta beste gauz asko bizkarrian lotura sendos zamatutako fardel guztiz aztunakiñ.

Talde onen guztiyan buru egiten zubena zan, azeriya; onek zuzenkidatzen zuben gabazko ibillpide guztiya.

Nik ez dakit gizon aundi, gai ayetakua nola izengoititu zuten azeriyaren izenarekin, bada izanik pišti au denik zarrena izan ta ere gai chikiyetakua, ez diruri gizon arentzat izen egokiya danik, bañan ala ezagungarritua zeguen bere izatiaz gaiñ.

Egunaz egiten zuben bere talde guztiyarekin billera leku bereşi batean, zeñatan arturik bear ziran neurri guztiyak, moldatzen zituen gaberako eginkisunak.

Amasei ziran talde ortan itzişilpean eta aginde estupean osoro kabitatuak, aben gogoko berri, etzuten beren gurasuak ere jakiten; irtezen ziran echetik gau guztiyan ez echeratzeko.

Egun bateko billera izan zan guztiz irabazpide aundiyetako jakiñ araztia, bañan muga echeko buru egiten zubena ere irichi zan jakitera gai aundiyetako gauz igarotzeak gertatu bear zubela gau artan.

Onek deitu ziyon sisa zaitzalle edo karabineruen buru egiten zubenari, eta esan ziyon zer jakitera irichi zan, eta gau artarako artu ritzala bear ziran neurri on guztiyak, azeriya bere taldearekin zepozatzeko.

Bañan onek ere išpi ona zeukan guztiz, zeñak jakiñ arazi ziyon azeri erneari, zer neurri eta prestaerak artu zituzten bi jaun ayek ga-berako; nondik norako zakabanatzak egin zituzten, eta beste gañerako gauzak.

Au aditu ondoren azeriyak esan ziyon bere išpiyari, bill arazi zezala bereala gaztetaldea zekiyeu leku berešira; ala, bereala aditzera eman ziyen eta illunabarreko bostak inguruan beren billeran artu zituzten neurri bearreko onak, eta afaltzera joan ziran bakoitza bere echera.

Afal ondoan, eta iñork ezer igarri etzezan, nor bere siñalatuko bi-diak artu zituzten gabeko eginkisunak naiera guztiyan ondo atera zitezen.

Besteak ere irten ziran beren nagusiya aurretik zutela, eta ipiñi zituen aginde zorrotzpean lau zatitan bakoitzak bere lekuari ondo zaitzeko, esanaz; bañan ikusirik azeriyak zer nolako jende ipinketa egin zuben gudari buru ark, bereala bururatu zitzaion zer gisatan moldatu bear zuben bere gaztetaldearen gau artako egintza.

Gabeko bederatziyak inguruan irten zan au zaldiz, eta guztiz azkar irichi zan bere mutillan irten lekura, abetako zortzi-ri eman ziyen fardel bana iñaurkiñez eta orbelez betea, bañan kiškur edo chirbillez ondo zorro zuluak moldaturik agerkaitzen ziranak, eta agindu ziyen zer bidetatik jarraitu bear zuten, esanaz gañera ez gelditzeko karabine-ruca lenbiziko geldi deira, eta gerora igesteko bizkarrian zituzten zorro fardelak utzirik.

Esan bezela egin zuten mutillak nagusiyaren agindua, zeren irichi ziranian karabineruak zeuden lekura, galdu zituzten bizkarrian zera-mazkiten zorro. fardelak, iges egiñik era berian.

Iruditurik karabineruari arrantza ederra egin zutela legorrez, zorro fardelak arturik erriratu ziran galeperra garitartean arkitzen dan baño poz geyagorekin; bañan ikusirik azeriyak bere azerikeriya naiera guztiyan irten zitzaion, beste zortzirekin igaro zan iñor gabetua zeguen bidetik nai zuben lekuraño, eta onekin bukatu zuben azeriyak, gau artako azekeriya.

JUAN IGNACIO URANGA.

